

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Internet bidez nahiz denda fisikoan eros ditzakete nahi duten arropa mota, hau da, interneten arropak erosi aparte hainbat pertsona egongo dira bezeroen zalantzak eta haietzako arropa aproposak aukeratzeko laguntza eskaintzen, hori internet bidez. Gero denda fisikora datozenek, arropa probatzeko aukera izango dute eta kirolean adituak diren dendariak egongo dira zerbait behar izatekotan laguntzeko. horrez gain, hilean behin edo gehiagotan zozketak egingo dira bezeroentzako partiduetarako sarrerak eskainiz, gure produktuetan deskontuak eginez etab...

kirol probak ere egin daitezke jende gehiago erakartzeko eta irabazleak gure produkturen bat edo gure dendetan erosteko dirua emanaz. Gure enpersak garrantzia hartuko balu futbolariak ekarriko genituzke haiekin harremanak eta jolasak egiteko. Youtube plataforman ere gure produktuen "review"-ak egingo genituzke gero bezeroei zein gomendatu ahal izateko. Noiz behinka, haien galderak eta zalantzak erantzungo genituzke haien kirol munduan arazoei irtenbide bat ematen saiatzeko.